



Beñat Gaztelumendi
Bertsolaria

Zerbait

Denbora ez dela berdina denontzat. Badirela denboratik eta espaziotik haragoko Zulo Beltzak. Badirela izarrak, orain dela milaka urte itzali ziren arren, gure gauak argitzen dituztenak. Eta burua es-tutuko nuen umetan, gurea ez zen denbora horrek zer esan nahi ote zuen igarri nahian. Filmetan bilatu nuen erantzuna: espazioan urtebete egin eta Lurrera mendeak igaro ondoren iritsitako astronauten istorio-etan. Edo fantasiazko beste pelikula hartan bestela; nola protagonistak bueltan tximinoek menderatutako pertsonekin egiten zuen topo: tximinoen eskulturak eta tximinoen neurrira egindako mundu hura. Eta filmetako erantzunak ahitzerako zuri-beltzeko aspaldiko argazki hura: Lurra Ilargiaren krater eta hauts artetik ikusia. Eta begiak ñarrotuta kontinenteak arakatuko nituen; Europa eta Europaren bihurtunean Kantauri eta Kantauriren kontra Euskal Herria eta Euskal Herriaren iparraldean Añorga aurkitu nahian. Ordura arteko nire ardatz geografi-koak apurtu zituen argazki hura.

Geroztik nire buruari sarritan egin izan diodan galdera da ea espaziotik begiratzen digunak zer ikusiko ote duen gure bizimoduetan. Aurkituko ote dion osotasunik gure mundu zati-tu eta zatikatu honi, liburu batetik begirada pixka bat jaso eta hizkiak hitz eta hitzak esaldi bilakatzen di-ren gisa berean. Hemen ere Einstein-en teorian bezain erlatiboa da den-bora; hauteskunde kanpainatik kanpainara doaz egutegiak; mundua aldatuko omen dute gure boto-pape-rek. Hemendik maiatzera bitarte po-litika ariko da bazter guztietan, abuztuko iluntze sargorietako zapa-



Donostiaren erdiguneko aldamio-arte hau.

Juan Carlos RUIZ | FOKU

rraden gisan: mitinak, bideoak, elka-rrizketak, memeak eta txioak; politi-ka kontsumo-objektu bilakatua, era-bili eta bota, botoa bezala. Eta igaroko da maiatza eta berriz ere bu-rua makurtuko dugu egunerokota-suna deritzogun inertzien diktadura horretara. Egunerokotasuna, batzue-tan, hauteskundeak baino politikoa-goia izan arren.

Mundua Lurretik haratagotik begi-ratzearen parekoa izan behar du leku bati denboraz kanpotik erre-paratzeak. Hirian obratan hasi, lu-rra zulatu, eta hoditerien, estolden eta hondakinen artean, bat-bate-an, jada desagertu den espezie ba-ten fosilak aurkitzeak. Aspaldiko zibilizazio baten pintura edo tresne-kin topo egiteak. Hemen, adibidez,

Donostiaren erdiguneko aldamio-ar-te honetan. Haurrak hara-hona par-kean, jendea erosketa-poltsekin den-datik dendara, etxe baten burdinazko hezurdura jotzen duen mailuaren hotsa, garabiak bueltaka, hondeamakinako langile kaskoduna parean daukanari oihuka. Eta, uste-kabea, lurpeko plastikozko hodian, hondar altxatuaren eta pintadaz jo-sitako panelen artean, zerbait. Zer-bait berehalakotasunak irentsiko ez duena, erakutsiko diguna zaharberri-tzeaz gain sortu ere egiten dugula; gure gorputz eraiki eta bizimodu prekario hauetan, egunean-egunean bizitzeaz gain aurrera ere bagoazela. Izan ere, mundua inertzia-jiraraz-ten duen ardatza mugitu ezean, dena aldatzen den arren, aldatzen al da zerbait? •